* Etxebizitza turistikoaren hirigintza erabilera ezartzeko eta ohiko etxebizitzan gelak turismo erabilerarako alokatzeko baldintzak.

* Ostalaritza erabilerak, finantza jarduerak edo banku jarduerak ezartzea, baita kale horietako eta hiri inguruneetako hiritarren bizi kalitatean, merkataritzaren sustapenean, dinamismo sozialean eta abarretan duten eraginari erreparatuta justifikatuta dauden beste jarduerak ere.

Kasu horietan, eta komeni den neurrian eta irismenarekin, erabilera horiek ezartzeko baldintza orokorrak berregokitu ahal izango dituzte Ordenantzek, erabilera horiek mugatuta edo debekatuta.

Adierazitako erabilerak ezartzeko erregimena hiri plangintzan (Plan Orokor hau barne) ezarritakoa da ondorio guztietarako, eta adierazitako ordenantzen eginkizuna erregimen hori garatzea izango da, baita egungo askotariko kasuistika kontuan harturik erregimena aplikatzeko irizpideak zehaztea ere. Testuinguru horretan, adierazitako erabilera guztiak edo batzuk debekatzera irits daitezke, baldin eta kasu bakoitzean bidezkoztatzen diren baldintzak betetzen ez badira.

E. Hirigintza planen, urbanizazio proiektuen, jardun urbanizatzaileko programen, berdinbanatzeko proiektuen, lur eremuak eta etxebizitzak banatzeko edo bereizteko proiektuen, eta antzeko beste batzuen edukia arautzen duten baldintzak.

F. Udal lizentziak eskatzeko, izapidetzeko eta gauzatea kontrolatzeko baldintzak.

G. Ordenantzetan arautzeko interesgarritzat jotzen den beste edozein gai arautzen duten baldintzak.

3. Zehaztapenek ordenantzen berezko maila eta izaera izango dute. Izapidetzeko eta onartzeko, baita aldatzeko ere, indarrean dagoen legerian ordenantza horietarako ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

4. Horien mende askotariko gaiak daudela kontuan izanik, eta horietako bakoitzaren berezko baldintzatzaileen eta kasuak kasu planteatutako berariazko helburuen kasuistikari erreparatuta, Udalak gai horiek guztiak modu bateratuan eta integrean arautuko dituen Ordenantzen proiektu edo dokumentu bakarra lantzea eta bideratzea erabaki dezake, edo dokumentu edo proiektu bereziak bideratzea erabaki dezake.

6. artikulua. *Plan Orokorraren aldaketa.*

1. Aldaketen justifikazioa.

Plan Orokor honen aldaketek indarrean dagoen hirigintza legerian ezarritako irizpideetara egokituko dira.(1)

de 30 de junio de 2006 (características y calidades mínimas de la urbanización; condiciones de ejecución material de la urbanización; etc.

B. En lo referente a la edificación:

* Condiciones de habitabilidad, morfología, calidad constructiva, tratamiento estético, seguridad, funcionalidad, etc. que se estimen adecuadas.

C. Condiciones generales y específicas en materia de protección ambiental, paisajística y naturalística, incluida la determinación de medidas de prevención y/o eliminación del ruido, etc.

D. Condiciones de implantación de usos y actividades en desarrollo de las establecidas en el planeamiento urbanístico, con la debida atención, entre otras, a cuestiones como las siguientes:

* La autorización del uso de vivienda en plantas bajas, entresuelos, etc. de edificaciones residenciales.

* Las condiciones de implantación del uso urbanístico de vivienda turística y alquiler de habitaciones en vivienda habitual, para uso turístico.

* La implantación de usos de hostelería, actividades financieras, bancarias, así como cualesquiera otros que en atención a sus afecciones en la calidad de vida de los ciudadanos, la dinamicidad comercial y social, etc. de las correspondientes calles y entornos urbanos lo justifiquen.

En esos casos, en la medida y con el alcance que se estime conveniente, las citadas Ordenanzas podrán reajustar las condiciones generales de implantación de los indicados usos, limitándolos o, incluso, prohibiéndolos.

Se entenderá a todos los efectos que el régimen de implantación de los citados usos es el establecido en el planeamiento urbanístico, incluido este Plan General, y que la tarea de las citadas Ordenanzas será la de desarrollar dicho régimen, concretando los criterios de aplicación del mismo en atención a la variada casuística existente. En ese contexto, podrán incluso prohibir la implantación de todos o alguno de los citados usos, siempre que no se cumplan las condiciones que en cada caso se estimen oportunas.

E. Condiciones reguladoras del contenido de los planes urbanísticos, proyectos de urbanización, programas de actuación urbanizadora, proyectos de equidistribución y expropiación, proyectos de edificación, proyectos de división o segregación de terrenos, viviendas, etc.

F. Condiciones de solicitud, tramitación y control de la ejecución de las licencias municipales.

G. Condiciones reguladoras de cualesquiera otras materias cuya regulación en las citadas Ordenanzas se estime de interés.

3. Sus determinaciones tendrán el rango y la naturaleza propios de unas ordenanzas. Su tramitación y aprobación, así como su modificación, se adecuará a los criterios establecidos para las mismas en la legislación vigente.

4. En atención a la diversidad de las materias objeto de las mismas, así como a la casuística de los condicionantes propios de cada una de ellas y de los objetivos específicos planteados en cada caso, el Ayuntamiento podrá acordar la elaboración y tramitación bien de un único proyecto o documento de Ordenanzas en el que de forma unitaria e integral se regulen el conjunto de las citadas materias, bien de documentos o proyectos diferenciados.

Artículo 6. *Modificación del Plan General.*

1. Justificación de las modificaciones.

Las modificaciones de este Plan General se adecuarán a los criterios establecidos en la legislación urbanística vigente.(1)

Testuinguru horretan, aldaketek interes orokorreko arrazoiaren oinarritu beharko dute, eta haien edukia eta hedadura zehatz-mehatz deskribatu beharko da, eta aldaketak izendatuki justifikatu beharko dira. Horretarako, Plan Orokorren xedapenen gaineko eragina behar besteko zehaztasunez aztertuko da, biztanleei, enpleguari, ekipamendu komunitario orokorrari eta tokikoari, ingurumen inpaktuari, espazio libreei, bide sareari, aparkalekuei eta azpiegiturei dagokienez, baldin eta erreformaren tamainak edota hedadurak beharrezko edota bidezko egiten badute.

Aldaketa guztiak berauek justifikatzen dituen arrazoiarekin lotuko dira, eta espedientearen ezin izango dira barne hartu arrazoi horrekin lotzen ez diren plangintzaren aldaketak, edo egindako deskribapen eta justifikazioetan espresuki aipatzen ez diren aldaketak.

2. Plan Orokorra bategitea edo eguneratzea.

Plan Orokor honi hainbat aldaketa egiten bazaizkio, bere bategitearen eta/edo eguneratzearen ondorioetarako indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituko zaio.(2)

7. artikulua. Plan Orokorra berraztertze baldintzak.

1. Legez horretara behartzen duten arrazoiaren ondorioz (legezko aldaketak, lurralde antolamenduko tresnetan ezarritako irizpideetara egokitzea eta abar) edo egokitasunaren eta/edo premiaren ondorioz, eta Udaltzako Plan Orokorra berraztertze bideratzen dituen ekimenak edozein izanik ere, honako suposizio hauetako edozeinetan osorik berraztertuko da Plan Orokorra:

A. Biztanleriaren xedapenei eta horren hazkunde indizeari buruzko aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean. Ebaluatuta ondorio bera ekarriko duten beste egoera batzuk baztertu gabe, Plan Orokor hau onartu eta indarrean jartzen den udealerriko biztanleria % 20 edo gehiago gehitzen denean gertatuko dira aldaketa horiek.

B. Planifikatutako etxebizitza berrien % 70 eraikitze lizenziak eman direnean.

C. Lur eremuen hirigintzako birkalkifikazioari eta sailkapenari buruzko aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean. Ebaluatuta ondoren ondorio berera eraman dezaketen beste egoera batzuk alde batera utzi gabe, aldaketa horiek gertatu direla ulertuko da honako suposizio hauetako edozeinetan:

* Lehendik urbanizaezin gisa sailkatuta zeuden eta hiri eremuari (hiri lurzoruek eta lurzoru urbanizagarriak osatzen duten multzoari) gehitzen zaizkion lur berrien azalera eremu horren azalera baino % 20 handiagoa denean, betiere Plan Orokor honen xedapenak erreferentziatzat hartuta.

* Aurretik lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen direnean, betiere horien azalera Plan horretan hala sailkatutako lur eremuen azalaren % 50 baino handiagoa denean.

* Plan Orokor honek hiri ingurunearen osotasunean (lurzoru urbanizagarriek eta hiri lurzoruek multzoan) proiektatzen duen hirigintza eraikigarritasun osoa % 25 edo gehiago gehitzen denean.

D. Egoeraren analisisa egin ondoren, Plan Orokor honetan definitutako hiri eboluzioaren estrategia eta lurzoru okupatzeko funtsezko eran aldarazi dela edo aldaraztea bidezkoa dela ondorioztatzen denean.

2. Bestalde, Plan Orokorra zati batean berraztertuko da edozein inguruabarren ondorioz udalerriko multzo homogeen baten antolamendua zati batean berriz aztertzea komeni den kasuetan, baldin eta, batetik, haren baldintza eta ezaugarriak analisi eta tratamendu globala eta bateratua(1) justifikatzen ba-

En ese contexto, dichas modificaciones deberán fundamentarse en motivos de interés general y exigirán una descripción pormenorizada de su contenido y alcance, así como una justificación expresa de las mismas. Con ese fin, se evaluarán con el detalle necesario sus efectos sobre las previsiones del Plan General en lo referente a población, empleo, equipamiento comunitario general y local, impacto ambiental, espacios libres, vialidad y aparcamiento, e infraestructuras, siempre que la entidad o alcance de la reforma lo haga necesario u oportuno.

Todas las modificaciones guardarán relación con el motivo que las justifica, sin que puedan incluirse en el expediente alteraciones del planeamiento no relacionadas con dicho motivo, o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

2. Refundición o actualización del Plan General.

En el supuesto de que este Plan General sea objeto de diversas modificaciones, a los efectos su refundición y/o actualización se estará a lo establecido en la legislación vigente.(2)

Artículo 7. Condiciones para la revisión del Plan General.

1. Con independencia de las iniciativas de revisión del Plan General que pudiera adoptar la Corporación Municipal tanto por razones de legalidad (cambios legislativos; adaptación a los criterios establecidos en los instrumentos de ordenación territorial; etc.), como de oportunidad y/o necesidad, se procederá a su revisión integral en cualquiera de los supuestos que se exponen a continuación:

A. Siempre que se produzcan modificaciones significativas en lo referente a las previsiones de población y a su índice de crecimiento. Sin descartar otras situaciones cuya evaluación dé pie a la misma conclusión, se entenderán existentes esas modificaciones en el supuesto de producirse un incremento de la población del municipio igual o superior al 20 % de la existente en el momento de la aprobación y entrada en vigor de este Plan General.

B. En el momento en que se haya procedido a la concesión de licencias de edificación para el 70 % de las nuevas viviendas planificadas.

C. Siempre que se produzcan modificaciones significativas en lo referente a la recalificación y la clasificación urbanística de los terrenos. Sin descartar otras situaciones cuya evaluación dé pie a la misma conclusión, se entenderán existentes esas modificaciones en cualesquiera de los siguientes supuestos:

* Cuando la superficie de los nuevos terrenos que, estando previamente clasificados como no urbanizables, se incorporen al área urbana (conjunto formado por los suelos urbano y urbanizable) supere en un 20 % la superficie de ésta, tomando como referencia a este respecto las previsiones de este Plan General.

* Cuando se reclasifiquen como suelo urbanizable terrenos previamente clasificados como suelo no urbanizable, cuya superficie excede en más de un 50 % la de los clasificados de aquel modo en este Plan.

* Cuando resulte un incremento de edificabilidad urbanística igual o superior al 25 % de la totalidad de la proyectada en el conjunto del medio urbano (conformado por los suelos urbano y urbanizable) por este Plan General.

D. Siempre que, previo análisis de la situación existente al respecto, se concluya que, o bien ha sido alterada de manera sustancial la estrategia de evolución urbana y de ocupación del suelo definida en este Plan General, o bien procede dicha alteración.

2. Por su parte, se procederá a su revisión parcial en los supuestos en los que resulte conveniente, por cualquier circunstancia, la reconsideración parcial de la ordenación de un conjunto homogéneo del término municipal, siempre que, por un lado, sus condiciones y características justifiquen su análisis y

dute, eta bestetik, berraztertze horrek eraginpeko esparruaren berariazko egitura antolamenduan eragina badu baina ez udal-erri osoarenean.

Eraginpeko esparruaren hirigintza eraikigarritasuna handitzea xedatzen duen Plan Orokor hau zati batean berraztertze proiektu orok indarrean dagoen legerian kasu horietarako ezarritako irizpideak bete beharko ditu.(2)

3. Osorik edo zati batean berraztertze erabakietako edozein hartzeko, alde zurretik kasu bakoitzean eraginpean hartutako esparru eta gaietan dagoen egoera ebaluatuko da, beharrezkoak diren txostenak eginez. Osorik edo zati batean berraztertzea komeni den aztertuko da.

BIGARREN TITULUA

LURZORUAREN EGITURAREN HIRIGINTZA KALIFIKAZIOKO ERREGIMENA

LEHEN KAPITULUA. HIRIGINTZA ERABILERAK

8. artikulua. *Hirigintza erabileren sistematizazio orokorra.*

1. Hirigintza erabileren oinarritzko sistematizazioa.

Sistematizazioaren ondorioetarako honako erabilera hauek bereizten dira:

- * Bizitegi erabilerak.
- * Jarduera ekonomikoen erabilerak.
- * Landa erabilerak eta itsasertza ustiatzeko erabilerak.
- * Komunikazio erabilerak.
- * Espazio libreen erabilerak.
- * Ekipamendu komunitarioko erabilerak.
- * Zerbitzu azpiegituren erabilerak.

2. Hirigintza erabilerak zehaztea haien ezarpena arautzeko.

A. Erabilera globaleko zonetako zein erabilera xehatuko azpizonetako ezarpena zehazteko, honako erabilera modalitate hauetan sistematizatzen dira hirigintza erabilerak:

* Erabilera bereizgarriak:

Halakotzat jotzen dira zona global bateko edo azpizona xehatu bateko erabilera bereizgarriak edo nagusiak, esparru horien izaera, xede funtzionala eta, hala badagokio, berezko erakuntza tipologiaren konfigurazioa kontuan hartuta.

* Erabilera bateragarriak:

Halakotzat jotzen dira erabilera bereizgarriez bestelako erabilerak, zona global batean edo azpizona xehatu batean baimen daitezkeenak, erabilera haiekiko eta, azken batean, esparru horien izaerarekiko eta xede funtzionalarekiko bateragarritasuna eta/edo osagarritasuna kontuan hartuta.

* Erabilera debekatuak:

Halakotzat jotzen dira zona global batean edo azpizona xehatu batean onartu ez diren eta onartu ezin diren erabilerak, esparru horien izaerarekiko eta xede funtzionalarekiko bateraezintasuna kontuan hartuta.

B. Bereizgarri edo bateragarri gisa ezarritako beste erabilera batzuekin batera beste erabilera batzuk ezartzeko aukera emateko, baldintza hauek ezarri dira:

* Erabilera parekatuak:

Beste erabilera bati parekatutako erabileratzat jotzen dira erreferentziako beste erabilera horren antzeko ezarpen baldin-

tratamiento global y unitario(1) y, por otro, dicha reconsideración afecte a la ordenación estructural específica del ámbito afectado pero no a la del conjunto del municipio.

Todo proyecto de revisión parcial de este Plan General que prevea el incremento de la edificabilidad urbanística del ámbito afectado deberá ajustarse a los criterios establecidos en la legislación vigente para dichos supuestos.(2)

3. A los efectos de la adopción de cualquiera de las decisiones de revisión integral o parcial anteriores se procederá a la previa evaluación, mediante la elaboración del o de los necesarios informes, tanto de la situación existente en los ámbitos y materias afectados en cada caso, como de la conveniencia o no de las citadas revisión integral o parcial.

TÍTULO SEGUNDO

RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN URBANÍSTICA ESTRUCTURAL DEL SUELO

CAPÍTULO PRIMERO. LOS USOS URBANÍSTICOS

Artículo 8. *Sistematización general de los usos urbanísticos.*

1. Sistematización básica de los usos urbanísticos.

A los efectos de su sistematización se distinguen los siguientes usos:

- * Usos residenciales.
- * Uso de actividades económicas.
- * Usos rurales y de explotación del litoral.
- * Usos de comunicaciones.
- * Usos de espacios libres.
- * Usos de equipamiento comunitario.
- * Usos de infraestructuras de servicios.

2. Caracterización de los usos urbanísticos a los efectos de la regulación de su implantación.

A. A los efectos de determinar su implantación bien en las zonas de uso global, bien en las subzonas de uso pormenorizado, los usos urbanísticos se sistematizan en las distintas modalidades que se exponen a continuación:

* Usos característicos:

Se consideran como tales los usos característicos o predominantes en una zona global o subzona pormenorizada en atención a la naturaleza, el destino funcional, e incluso, en su caso, la configuración de la tipología edificatoria propia de dichos ámbitos.

* Usos compatibles:

Se consideran como tales los usos diversos de los característicos, autorizables en una zona global o subzona pormenorizada en atención a su compatibilidad y/o complementariedad con aquéllos y, en definitiva, con la naturaleza y el destino funcional de esos ámbitos.

* Usos prohibidos:

Se consideran como tales los usos no autorizados ni autorizables en una zona global o en una subzona pormenorizada, en atención a su incompatibilidad con la naturaleza y el destino funcional de dichos ámbitos.

B. Al objeto de permitir la implantación de otros usos en coexistencia con los establecidos como característicos o compatibles se establecen las condiciones de:

* Usos asimilados:

Se consideran como tales, los usos cuyas condiciones de implantación y efectos en el entorno son semejantes a los de

tzak eta ingurunearen gaineko eraginak dituzten erabilerak.(1). Hori dela eta, azken erabilera horren antzeko baldintzetan ezarzen dira.

Hain zuzen ere, erabilera parekatuztat jotzen dira hurrengo artikuluan izendatuki halakotzat identifikatzen direnak.

* Erabilera osagarriak:

Halakotzat jotzen dira erabilera horiei lotuta daudenak, egi- ten dieten zerbitzua kontuan hartuta. Horrexegatik hain zuzen ere, erabilera nagusiarekin funtzionalki integratuta ezarri behar- ko dira. Era berean, erabilera nagusi horrek erabilera bereizgarri baten zein erabilera bateragarri baten berezko izaera eduki de- zake.

C. Erabilera bat autonomotzat jotzen da loturarik gabe ezartzen denean.

D. Erabilera bat zona edo azpizona batean bereizgarritzat jotzeak bertan erabilera horren parekatu eta osagarri gisa defini- tzen diren erabilerak inplizituki baimentzea ekarriko du, hainbat motatako zona eta azpizonetako erabilera erregimena arautzean izendatuki kontrakorik adierazten ez bada.

E. Zona edo azpizona jakin batean erabilera bereizgarrie- kiko erabilera parekatuztat eta osagarritzat jotzen diren erabile- ra parekatuak eta osagarriak soilik baimenduko dira.

F. Erabilera parekatuaren izaera hori Plan Orokor honetan izendatuki aurreikusitako suposizio espezifikoetan baino ezin izango da aplikatu zona globaletan eta lurzoru urbanizaezinenaren esparruetan. Gainerako kasuetan ez da aplikatzerik baimenduko.

G. Hiri lurzoru gisa eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu- tako lursailaz osatutako erabilera globaleko zonetan titularta- sun publikoko eta/edo zerbitzu orokorreko bateragarritzat joko dira, zirkunstantzia hori izendatuki adierazi beharrik gabe, hu- rrengo oinarritzko zerbitzuen erabilerak, baldin eta horien ezar- penen bateragarria bada haien izaera eta xede funtzionalarekin.

Era berean, oinarritzko zerbitzuen erabilera horiek lurzoru ur- banizaezin gisa sailkatutako lursailetakoa zona globaletan ezarri- ko badira -modu autonomoan zein erabilera osagarri gisa-, hi- rigintza erregimenarekiko egokitzapena eta/edo bateragarritasuna justifikatu beharko da aurretik, baita horietan aplikatu be- harreko hirigintza antolamenduari gainjarritako baldintzatzai- leak erregulatzeko irizpideekiko eta indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako xedapenekiko egokitzapena eta/edo bateragarritasuna ere. Nolanahi ere, zona horietan zein landa ingurunean ezartzeko beharra ere justifikatu beharko da aurre- tik. Zehazki, babes bereziko landa zonetan, ibai ibilguetakoa ba- bes ertzetan, eta babestu beharreko hirigintza antolamenduari gainjarritako baldintzatzailen mende dauden esparruetan eza- rriko badira, behar bezala ebaluatu beharko da aurretik indarre- an dauden legezko xedapenen eta hirigintza erregimenaren tes- tuinguruan bideragarriak diren.

Zona horrek indarrean dagoen hirigintza legerian araututa- ko zuzkidura estandarrekin lotzen diren hiri zerbitzuak edukitze- ko beharrezko azpiegitura erabilerak eta zuzkidura erabilerak joko dira oinarritzko zerbitzutzat, betiere aurretik dauden eta berri gisa finkatutako hirigintzako eta eraikuntzako garapenen zerbitzura daudenak. Horien artean honako hauek hartuko dira aintzat:

- * Oinezkoen eta ibilgailuen (motordunak zein motorrik ga- beak -bidegorria, etab.-) zirkulazioa.
- * Aparkalekua.
- * Espazio libreak.
- * Ekipamendu komunitarioa.
- * Zerbitzu azpiegiturak.

Ez dute oinarritzko zerbitzuen izaera izango funtsean ekonomia jarduera autonomo gisa -eta ez zuzkidura estandar horiei

ese otro uso de referencia, por lo que, habitualmente, se im- plantan en condiciones similares a las de este último.(1)

En concreto, tienen la condición de usos asimilados los que se identifican expresamente como tales en el artículo siguiente.

* Usos auxiliares:

Se consideran como tales, los vinculados a los característi- cos y compatibles en atención al servicio que les prestan. Preci- samente por ello, la implantación de aquéllos ha de producirse de forma funcionalmente integrada con el uso principal.

C. Se considera que un uso tiene la condición de autóno- mo cuando se implanta de forma independiente.

D. La consideración de un uso como característico o com- patible en una zona o subzona supondrá la autorización implí- cita en la misma de los usos que se definen como asimilados y auxiliares de aquél, salvo que se indique expresamente lo con- trario en la regulación del régimen de uso de los diferentes tipos de zonas y subzonas.

E. En una determinada zona o subzona únicamente se au- torizarán como usos asimilados y auxiliares los que tengan esa condición respecto de los característicos en las mismas.

F. La aplicación de la condición de uso asimilado en las zonas globales y ámbitos del suelo no urbanizable queda limita- da a los supuestos específicos expresamente previstos en este Plan, no autorizándose su aplicación en los restantes casos.

G. En las diferentes zonas de uso global integradas por te- rrenos clasificados como suelo urbano o urbanizable, se consi- derarán compatibles, sin la necesidad del señalamiento expre- so de esta circunstancia, los denominados usos de servicio bá- sicos de titularidad pública y/o servicio general, siempre que su implantación resulte compatible con la naturaleza y el destino funcional de aquéllas.

A su vez, la implantación de esos usos de servicios básicos, bien con carácter autónomo bien como usos auxiliares, en zonas globales integradas por terrenos clasificados como suelo no urbanizable, requerirá la previa y debida justificación tanto de su adecuación y/o compatibilidad con el régimen urbanístico de las mismas, con los criterios reguladores de los condicionan- tes superpuestos a la ordenación urbanística de aplicación en ellas y con las previsiones establecidas en las disposiciones le- gales vigentes, como de la necesidad de su implantación en tanto en esas zonas como en el medio rural. En particular, su implantación en las zonas rurales de protección especial, en las márgenes de protección de los cauces fluviales y en los ámbitos sujetos a condicionantes superpuestos a la ordenación urbanís- tica que deban ser objeto de preservación requerirá la previa y debida evaluación específica de su viabilidad en el contexto de las disposiciones legales y del régimen urbanístico vigentes.

Tendrán esa consideración de servicios básicos los usos do- tacionales e infraestructurales necesarios para que la zona cuente con los servicios urbanos asociados a los estándares do- tacionales regulados en la legislación urbanística vigente al ser- vicio de, como tales, los desarrollos urbanísticos y edificatorios tanto preexistentes y consolidados como nuevos. Entre ellos se consideran los siguientes:

- * Circulación peatonal y rodada (tanto motorizada como no motorizada -bidegorri, etc.-).
- * Aparcamiento.
- * Espacios libres.
- * Equipamiento comunitario.
- * Infraestructuras de servicios.

No tendrán esa condición de usos de servicios básicos las infraestructuras de servicios urbanos que se proyecten implan-

lotzen zaizkien zuzkidura gisa- ezarri nahi diren hiri zerbitzu-
etako azpiegiturak.

3. Erabilera baimenduei (bereizgarriei eta bateragarriei) apli-
katzekoak zaizkien baldintzak.

Hirigintza erabilera bat erabilera bereizgarritzat edo batera-
garritzat jotzen bada ere, ezinbestean egin beharko dira erabili-
ra horien ezarpena legeztatuko duen udal lizentziaren berariaz-
ko izapide, txosten eta baimen osagarriak, betiere indarrean
dauden lege xedapenetan eta Plan Orokor honetan bertan hala
egin behar dela finkatzen den kasuetan.

Ildo horretan, jarduerak hiri plangintzan eta udal ordenan-
zetan finkatuta dauden ezartzeko baldintza orokorrak ez ezik,
gai horretan indarrean dagoen legerian aurreikusitako baldin-
tzak ere bete beharko dituzte.(2)

Udal zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, instalazioak
ezartzea galaraz daiteke, baldin eta, beren tamaina edo ezauga-
rri funtzionalengatik, behar bezala konpondu ezin diren premia
bereziak sortzen badituzte, indarrean dagoen plangintzak eza-
rritako antolamendu xehatuaren esparruan, honako hauek dire-
la eta:

- * Ibilgailuen eta oinezkoen sarbideen baldintzak.
- * Aparkalekuen zuzkidura eta ezaugarriak.
- * Zamaletarako espazio osagarriak antolatzea.

* Beste gai batzuk, ezartzea ukitutako esparrurako plan-
gintzak zehazturiko antolamendu baldintzekin nabarmen na-
hasgarria edo bateraezina bihurtzen badute.

Eta hori, nahiz eta instalazio horiek ezartzea berariaz bai-
mendu badu, orokorrean, aipatutako plangintzak.

Bestela, instalazio horiek ezartzeko baimena ematean, da-
gokion udal lizentzian betebeharrak bereziak ezar daitezke, adiera-
zitako arazoei erantzun ahal izateko edo horiek zuzentzeko.

4. Aurreikusten ez diren erabilerak.

Artikulu honetan azaltzen den erabileren sistematizazioa
zein hurrengo artikuluan egiten den horren garapena erreferen-
tziatzeko esparru irekia eta ez-baztertzaila izango da.

Udalak testuinguru horretan izendatuki sartu gabeko erabi-
lerak adierazitako beste erabileren hirigintza eraginekiko analo-
giaz tipifikatu eta tratatu ahal izango ditu.

Era berean, antzeko irizpideari jarraituz, zona edo azpizona
jakin batean, izendatuki baimenduta zein debekatuta ez dago-
en erabilera bat ezartzea baimen edo debeka dezake.

9. artikulua. *Hirigintza erabileren edukia.*

1. Bizitegi erabilera.

Bizitegi erabileratzat hartzen da pertsonei ostatu iraunkorra
emateko balio duena.

A. Etxebizitza erabilera.

Pertsona bati edota edozein motatako kolektiboari ostatu
ematea hartzen da etxebizitza erabileratzat; haatik, okupatuta-
ko lokal bakoitzeko gehienez ere 12 lagun izan daitezke. Familia
unitateen kasuan, kopuru hori gaintu ahal izango da.

Honako hauek joko dira etxebizitza erabileraren erabilera
osagarritzat:

- * Ezkaratzak, trastelekuak, esekitokiak, instalazio gelak, lo-
rategi pribatuak eta antzeko beste batzuk.
- * Aparkaleku erabilera edo ibilgailuak gordetzeko, motor-
dunak zein motor gabekak.

tar no como dotaciones asociadas a los indicados estándares
dotacionales, sino, básicamente, como actividad económica en
sí misma autónoma.

3. Condiciones aplicables a los usos autorizados (tanto ca-
racterísticos como compatibles).

La consideración de un uso urbanístico como característico
o compatible no excluye la exigencia, en los supuestos así esta-
blecidos en las disposiciones legales vigentes y en este mismo
Plan, de trámites, informes y autorizaciones específicos comple-
mentarios de la correspondiente licencia municipal que legalice
su implantación.

En ese sentido, las actividades deberán cumplir, además de
las condiciones generales de implantación de las mismas esta-
blecidas en el planeamiento urbanístico y en las ordenanzas
municipales, los requisitos previstos en la legislación vigente en
la materia.(2)

Previo informe de los servicios técnicos municipales, podrá
impedirse la implantación de aquellas instalaciones que, por su
magnitud o características funcionales, planteen necesidades
singulares no resolubles adecuadamente en el marco de la or-
denación pormenorizada establecida por el planeamiento vi-
gente en lo referente a:

- * Las condiciones de los accesos rodados y peatonales.
- * La dotación y características de los aparcamientos.
- * La disposición de espacios complementarios para carga
y descarga.
- * Otras cuestiones que hagan que su implantación sea
manifiestamente perturbadora o incompatible con las condicio-
nes de ordenación definidas por el planeamiento para el ámbito
afectado.

Y eso, aun cuando la implantación de dichas instalaciones
haya sido autorizada expresamente, si bien con carácter genéri-
co, por el citado planeamiento.

Alternativamente, en su caso, su autorización podrá ser
complementada con la imposición, en la correspondiente licen-
cia municipal, de obligaciones singulares que permitan dar
respuesta y/o corregir los conflictos señalados.

4. Usos no previstos.

Tanto la sistematización de usos expuesta en este artículo,
como el desarrollo que de la misma se efectúa en el artículo si-
guiente, constituyen un marco de referencia abierto y no exclu-
yente.

El Ayuntamiento podrá tipificar y tratar los usos no incluidos
de forma expresa en ese contexto por la analogía de sus efectos
urbanísticos con los de otros usos reseñados.

De igual manera, con similar criterio podrá autorizar o prohi-
bir la implantación de un uso no autorizado ni prohibido de mo-
do expreso, en una zona o subzona determinadas.

Artículo 9. *Contenido de los usos urbanísticos.*

1. Uso residencial.

Se entiende por uso residencial el que sirve para proporcio-
nar alojamiento permanente a las personas.

A. Uso de vivienda.

Se entiende por uso de vivienda el alojamiento de una per-
sona o de colectivos de cualquier tipo hasta un máximo de 12
personas por local ocupado. En el caso de unidades familiares
podrá sobrepasarse esa cifra.

Se considerarán como usos auxiliares del uso de vivienda:

- * Los portales, trasteros, tendedores, cuartos de instala-
ciones, jardines privados y otros similares.
- * El uso de aparcamiento o guarda de vehículos tanto mo-
torizados como no motorizados.

* Etxebizitzari lotutako kirol instalazioak: igerilekua, pilota-
lekua, etab., etxebizitzak soilik erabiltzeko direnak.

* Etxebizitzak soilik erabiltzeko gas likidotuen biltegiak.

* Etxebizitzekin lotutako gainerako instalazio eta azpiegi-
tura osagarriak (igogailuak, eguzki plakak, instalazio termikoak,
etab.).

Edonola ere, erabilera osagarri horiek ezartzea baimentzeko
edo debekatzeko ondorioetarako, hiri plangintzan zein horren
tresna osagarrietan berariaz ezarritakoari jarraituko zaio.

Etxebizitza erabilerari parekatutako erabileratzat joko dira:

* 1. kategoriako industria erabilerak.

* Bulegoak eta langela profesionalak.

* Erabilera turistikorako ostatuak ohiko etxebizitzetako ge-
letan.

Kasu horietan guztietan, halako erabilera parekatutzat jo-
tzeko honako bi baldintza hauek bete beharko dituzte: hartzen
dituen lokalak titularraren edota legezko ordezkariaren ohiko bi-
zileku iraunkorra izan behar du; eta erabilera parekatu horieta-
rako azalera ezin izango du lokalaren azalaren erdia gaindi-
tu, ezta 125 m²(e)-ko azalera erabilgarria ere.

Erabilera turistikorako etxebizitza geletan ostatuak ezartzea
indarrean den udal ordenantzaren edo, hala gertatuz gero, hura
ordezkatzan duenaren mende geratuko da.

B. Bizitegi kolektiboa.

Bizitegi kolektiboko erabilera da okupatutako lokaleko 12
pertsone bako gehiagoko kolektibo ez-familiarren bizitokiko
erabilera, titulartasun pribatuaren erregimenean gauzatua, be-
tiere bizitokira soilik edo nagusiki zuzentzera bermatuko duten
baldintzetan, erabilera horren beste erabilera osagarri batzu-
ekin osatzearen kalterik gabe.

Halakotzat joko dira zaharren egoitzak, unibertsitate egoi-
tzak, egoitza nagusiak, aterpeak, komentuen eta aurrekoen an-
tzeko baldintzak eta izaera dituzten beste batzuk.

Erabilera osagarri izango dira etxebizitza erabilerari dagokio-
nez halakotzat jotzen direnak, egoitzako langileek soilik eginda-
ko erabilera asistentzialekin osatuta.

Halaber, 1. kategoriako industria erabilerak eta bulego eta
langela profesionaletako erabilerak erabilera parekatutzat joko
dira –egoitzako langileek soilik egindakoak direnean–.

Haren izaera kontuan izanik, ekipamendu erabilera pribatu-
tzat ere jo ahal izango da.

C. Sarbide komunak dituzten eta/edo barrutik komunika-
tuta dauden espazio edo lokal juridikoki independenteetan ga-
ratzen diren bizitegi jardunak modu bateratuan hartuko dira, jar-
dun bakar baten moduan, etxebizitza erabileratzat jotzeko edo
bizitegi kolektiboko erabileratzat jotzeko ondorioetarako.

2. Jarduera ekonomikoaren erabilerak.

2.1. Industria erabilerak.

A. Halakotzat joko dira:

* Mota orotako produktuak lortzeko eta transformatzeko
industriak.

* Produktuak kontserbatzeko, gordetzeko edo banatzeko
erabiltzen diren biltegiak –xehekari, handizkari, instalatzaile
edo banatzaileak soilik hornitzen dituztenak–; baztertuta dago
jendeari zuzenean saltzea.

* Mota orotako produkzioak, ikerketako, garapeneko eta be-
rikuntzako laborategiak edo zentroak, erabiltzen dituzten produk-

* Las instalaciones deportivas –piscina, frontón, etc.–, de
uso privativo, vinculadas a la vivienda.

* Los depósitos de gases licuados de uso privativo de las
construcciones de vivienda.

* Las restantes instalaciones e infraestructuras asociadas
a las viviendas (ascensores, placas solares, instalaciones térmi-
cas, etc.) de carácter auxiliar.

En todo caso, a los efectos de la autorización o prohibición
de la implantación de esos usos auxiliares se estará a lo esta-
blecido, en su caso y de manera específica, bien en el planea-
miento urbanístico bien en los instrumentos complementarios
del mismo.

Por su parte, se considerarán como asimilados al uso de vi-
vienda:

* Los usos industriales de 1.^a categoría.

* Las oficinas y los despachos profesionales.

* Los alojamientos en habitaciones de vivienda habitual
para uso turístico.

En todos esos casos, para su consideración como tales usos
asimilados se deberán cumplir estas dos condiciones: el local
en el que se implanten ha de constituir el domicilio habitual y
permanente de su titular o representante legal; la superficie útil
destinada a esos usos asimilados no ha de superar ni la mitad
de la superficie del local, ni 125 m²(u) –superficie útil–.

La implantación de los alojamientos en habitaciones de vi-
vienda para uso turístico estará sometida a la ordenanza muni-
cipal vigente o la que la sustituya en su caso.

B. Residencia colectiva.

Se entiende por uso de residencia colectiva el alojamiento
de colectivos no familiares de cualquier tipo por encima de 12
personas por local ocupado, ejercido en régimen de titularidad
privada, y en condiciones que conlleven y garanticen su destino
exclusivo o predominante a alojamiento, sin perjuicio de su
complementación con otros usos auxiliares del mismo.

Se consideran como tales las residencias de ancianos, las
residencias universitarias, los colegios mayores, los conventos y
otros de condiciones y naturaleza similares a los anteriores.

Tienen la condición de usos auxiliares los considerados
como tales en relación con el uso de vivienda, complementados
con los usos de carácter asistencial ejercidos exclusivamente
por el personal de la residencia.

A su vez, los usos industriales de 1.^a categoría y los de oficinas
y despachos profesionales ejercidos exclusivamente por el perso-
nal de la residencia, tienen la condición de usos asimilados.

En atención a su naturaleza, es susceptible de ser conside-
rado asimismo como uso de equipamiento privado.

C. A los efectos de su consideración como uso bien de vi-
vienda bien de residencia colectiva, la o las actuaciones de ca-
rácter residencial que incidan en espacios o locales jurídicamen-
te independientes pero que cuenten con accesos comunes
y/o estén internamente comunicados entre sí serán considera-
dos de forma unitaria como una única actuación.

2. Usos de actividades económicas.

2.1. Usos industriales.

A. Se consideran como tales:

* Las industrias de obtención y transformación de produc-
tos de todo tipo.

* Los almacenes destinados a la conservación, guarda, o
distribución de productos, para el suministro exclusivo a detallis-
tas, mayoristas, instaladores, fabricantes o distribuidores, que-
dando excluida la venta directa al público en general.

* Los laboratorios o centros de producción, investigación,
desarrollo e innovación de todo tipo, salvo que por la inocuidad

tuek kalterik ez eragiteagatik eta bertan gauzaten diren jarduerak gogaikarriak ez izateagatik bulego erabilerari pareka dakizkiekeenak izan ezik.

* Ibilgailuak, makineria eta mota orotako tresnak konponzeko lantegiak.

* Zerbitzuguneak, erregaiz hornitzeko eta ibilgailuak garbitzeko unitateak.

* Mota orotako erregaien gordelekuak eta biltegiak, salmentarako direnak.

* Errepidean zeharreko garraio agentziak eta kamioiak, autobusak eta bestelako ibilgailu edo makineria automobilak gordetzeko kotxetegiak.

* Makineria, txatarra, ibilgailu edo materialetarako aire zabaleko biltegiak eta gordelekuak.

* Nekazaritza industriak, halakotzat jotzen dira nekazaritza, abeltzaintza eta basolanetako produkzioko jarduerak, baldin eta jarduera horiek garatzen direneko lur eremua ez bada produkzioaren zuzeneko euskarri gisa zuzenean produkzioan erabiltzen, harekin loturarik izan gabe.

Izaera hori dute, besteak beste:

– Nekazaritzako elikagaien industriak (landare kontserbaintzak, marmeladak, etab.; sagardoa egiteko dolareak; ardo, txakolina eta abar egiteko upategiak; gaztagintza; bestelako esnekien produkzioa; haragi produktuak, hestebeteak etab. lantzea; erle produktuak ontziratzea eta lantzea; eta abar).

– Nekazaritza produkzioko (baratzeak), landareetako, loreetako eta abar mintegiak, negutegiak eta abar.

Kasu horietan, produkzioa ez du lur eremua zuzeneko erreferente edo euskarri gisa, eta zuzenean lotzen da produkzioko eraikuntzak edo instalazioak ezartzearekin. Izatez, eraikuntza edo instalazio horiek mekanismo naturalen (eguzki argi eta abarren) eta/edo artifizialen (berotegi, eta abarren) laguntzarekin edo errefortzuekin produkzioa errazteko temperatura, hezetasuna eta beste ingurumen faktore batzuk egonkor mantentzeko gaitutako barrutiak izango dira. Erainkuntza finkoak eta egonkorak izan daitezke (zimendatutako metalezko profilak, kristalezko itxitura, zoladura eta abar duten egiturak) zein beste izaera bateko eraikuntzak, sinpleagoak edo behin-behinekoagoak.

– Baso industriak (zerratokiak eta zura leuntzea; zura kontserbazio agenteekin edo beste batzuekin bustitzea edo tratamendu kimikoa aplikatzea; eta abar).

– Antzeko izaera duten beste jarduera batzuk.

* Itsasertza ustiatzeko industriak.

Horien artean daude arrain haztegiak, eta horiek pareka daitezkeen beste instalazio batzuk.

* Zerbitzu publikoko industriak, hala nola errausketa labeak eta, hala badagokio, beilatokiak, betiere azken kasu horretan eta haren ezaugarriekin erreparatuta, laguntza arloko hirugarren sektoreko erabileratzat jo ezin badira edota jo behar ez badira. Halakotzat jo daitezke, halaber, hiri zerbitzuetako azpiegiturak, betiere horiek zuzkidura arazoekin eta helburuekin garatzen eta ezartzen ez direnean (indarrean dagoen hirigintza legerian araututako zuzkidura estandarrekin lotzen diren oinarriko zerbitzu erabileren gisara), baizik eta ekonomia jarduera baten garapenarekin eta jardunarekin lotzen diren xede ekonomikoekin garatzen eta ezartzen direnean.

* Mota orotako meategiak eta erauzte industriak, hala badagokio, lurzoru urbanizaezinean ezarri daitezkeenak.

* Oro har, erabili, maneiatu edo saldutako materialengatik, edo erabilitako bitarteko teknikoengatik, pertsonen eragozpenak, arriskuak edo ezerosotasunak sor diezazkieketen produktuak edo ondasunei kalteak eragin diezazkieketen produktuak fabrikatzeko eta transformatzeko jarduera guztiak.

de los productos manipulados y la completa ausencia de molestias producidas por las actividades realizadas, resulten equiparables al uso de oficina.

* Los talleres de reparación de vehículos, maquinaria y aparatos de todo tipo.

* Las estaciones de servicio, unidades de suministro de combustible y lavado de vehículos.

* Los depósitos y almacenes de combustibles de todo tipo, destinados a la venta.

* Las agencias de transporte por carretera, y las cocheras destinadas a la guarda de camiones, autobuses y otros vehículos o maquinaria automovil.

* Los almacenes y depósitos al aire libre de maquinaria, chatarra, vehículos o materiales.

* Las industrias agrarias, considerándose como tales las actividades de producción agropecuaria y forestal en las que el terreno en el que se emplazan las mismas no se utiliza de forma directa en la producción a modo de soporte directo de ésta, careciendo de relación con el mismo.

Tienen esa condición, entre otras:

– Las industrias agroalimentarias (producción de conservas vegetales, mermeladas, etc.; lagares de elaboración de sidra; bodegas de producción de vino, txakolí; etc.; queserías; elaboración de otros productos lácteos; elaboración de productos cárnicos, embutidos, etc.; envasado y tratamiento de productos apícolas; etc.).

– Los viveros, invernaderos, etc. de producción agraria (hortícola...), de plantas y flores, etc.

En estos casos, la producción, además de no tener como referente o soporte directo el terreno, esta asociada a la implantación de construcciones o instalaciones que, en términos generales, conforman recintos habilitados para mantener constantes la temperatura, la humedad y otros factores ambientales con el fin de favorecer la citada producción con el apoyo o refuerzo de mecanismos naturales (luz solar, etc.) y/o artificiales (calefacción...). Pueden responder a soluciones constructivas tanto fijas y estables (estructuras con perfiles metálicas con cimentación, cierre acristalado y solera, etc.) como de otra naturaleza, incluso más simple o provisional.

– Las industrias forestales (aserraderos y cepillado de madera; impregnación o tratamiento químico de la madera con agentes de conservación u otros; etc.).

– Otras actividades de similar naturaleza.

* Las industrias de explotación del litoral.

Se incluyen entre ellas las piscifactorías, así como otras instalaciones asimilables a las mismas.

* Las industrias de servicio público como, en todo caso, los crematorios y, en su caso, los tanatorios, siempre que, en este último caso y en atención a sus características, no puedan/deban ser considerados como usos terciarios de carácter asistencial. También pueden ser considerados como tales las infraestructuras de servicios urbanos, en los supuestos en los que su desarrollo e implantación no responda a razones y objetivos dotacionales (a la manera de usos de servicios básicos asociados a los estándares dotacionales regulados en la legislación urbanística vigente), sino a fines básicamente económicos, asociados al desarrollo y ejercicio de una actividad económica.

* Las industrias mineras y extractivas de todo tipo, que, en su caso, puedan implantarse en suelo no urbanizable.

* En general, todas aquellas actividades de fabricación y transformación de productos que por los materiales utilizados, manipulados o despachados, o los elementos técnicos empleados, puedan ocasionar molestias, peligros o incomodidades a las personas, o daños a los bienes.

Honako hauek adierazitako industria erabileraren erabilera osagarritzat joko dira: horiekin lotzen diren bulegoak, laborategiak eta kalkulu zentroak; zerbitzu instalazioak –ur ponpatze edo saneamendurako urandelak eta instalazioak, hondakinak arazteko instalazioak, eta abar-; aparkalekuak eta ibilgailuen eta makineriaren parkeak; antzeko beste batzuk.

Erabilera osagarriaren izaera hori eduki ahal izango du, halaber, dagozkion eraikuntza eta instalazio industrialen zaintzaile edo begiralearen etxebizitzak. Edonola ere, hiri plangintzak izendatuki eman beharko du kasuak kasu dagokion lursailean eta/edo esparruan ezartzeko baimena.

B. Merkataritzako edo, oro har, hirugarren sektoreko funtzioak barne hartzen dituzten industria jarduerak erabilera baktarizat joko dira, industria erabilera bereizgarriaren lokaletan edo lursailetan ezartzearen ondorioetarako. Dena den, aipatutako erabileretara berariaz zuzentzen diren azalera bereiz aintzatu ahal izango dira, horiei aplikatzekoa den arautzearen ondorioetarako.

C. Baimendutako bestelako erabileren jardunarekiko edo pertsonetikiko eta ingurunearekiko, oro har, sorraraz dezaketen ezerosotasun, kaltegarritasun, osasungaiztasun edo arriskugarritasunari erreparatuta, honako kategoria hauetan sailka daitezke industria erabilerak:

a) 1. kategoria.

Eragozpenik edo arriskurik ez duten industria jarduerak sarzen dira kategoria horretan. Jarduera gauzatzean erabilitako azalera erabilgarria kasu guztietan 140 m²(s) baino txikiagoa izango da. Ondorio horretarako, kasuak kasu eraginpean dagoen lokalera azalera eraiki guztia hartu beharko da aintzatu.

Kategoria honetako industria erabilerak bizitegi erabilerei, hirugarren sektorekoei eta ekipamendu komunitariokoei parekatutzat joko dira, eta nagusiki erabilera horietarako lursail eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

Ez dira lehen kategoriatzat joko, ezta etxebizitzarekin parekatutako erabileratzat ere, adierazitakoa baino azalera txikiagoko lokal eta espazioak okupatu arren, besteak beste jarduerarekin berarekin lotutako su karga kontuan hartuta, eragozpenik edo arazorik ekar dezaketen industria erabilerak.

b) 2. kategoria.

Oro har, industria inguruneetan ez ezik, bizitegi inguruneetan, hirugarren sektorekoetan edo ekipamendu komunitariokoei ere bateragarritzat eta onargarritzat jotzen diren industria jarduerak, ez baitira arriskutsuak, ez baitute sortzen erabilera mugakideentzat zuzendu ezinezko eragozpenik edo ezerosotasunik –usainak, gasak, hautsa, zarata, bibrazioak, su karga eta abar sortzea– eta, gainera, honako baldintza hauek guztiak betetzen baitituzte: gehienez ere 4 ZP-ko potentzia unitarioko makinak edo motorrak erabiltzea; instalatutako potentzia dentsitate 0,135 ZP/m²(e)-koa –azalera erabilgarria– edo txikiagoa izatea; eta 280 m²(s) baino azalera txikiagoa erabiltzea.

Motozikletak eta automobilak konpontzeko lantegiak kategoria honetan sartutako dira. Haatik, ez dira sartuko txapa eta pintura konpontzekoak, ezta ibilgailu astunak konpontzekoak ere.

Kategoria honetako industria erabilerak merkataritzako erabileretara joko dira, eta erabilera horietara nagusiki zuzenduko diren lursail eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

c) 3. kategoria.

Aurreko 1. eta 2. kategorietan sartu ezin diren industria jarduerak –haientzat eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutelako– eta, salbuespenak salbuespen, honako baldintza hauek edozein betetzen dutenak hartzen ditu bere baitan:

* Oro har, eta neurri zuzentzaileak hartuta ere, etxebizitzei edo hirugarren sektoreko erabilerei zein ekipamendu komunitariokoei eraikin berean edo horien aldamenean kokatuz gero eragozpenak sor diezazkieketen industria jarduerak.

Se consideran como usos auxiliares de los citados usos industriales: las oficinas, laboratorios y centros de cálculo vinculados a los mismos; las instalaciones de servicios –depósitos e instalaciones de bombeo de agua o saneamiento, las instalaciones de depuración de residuos, etc.–; aparcamientos y parques de vehículos y maquinaria; otros similares.

También podrá tener esa condición de uso auxiliar la vivienda del guarda o vigilante de las correspondientes edificaciones e instalaciones industriales. En todo caso, su implantación deberá ser autorizada de forma expresa por el planeamiento urbanístico en la parcela y/o ámbito afectado en cada caso.

B. Las actividades industriales que incluyan funciones de carácter comercial o terciario en general, se considerarán, a los efectos de su implantación en los locales o parcelas de uso característico industrial, como una actividad única de carácter industrial, sin perjuicio de la consideración independiente de las superficies de techo destinadas de forma específica a los usos citados, a los efectos de la regulación aplicable a los mismos.

C. En atención a las incomodidades, nocividad, insalubridad o peligrosidad que puedan originar respecto al ejercicio de otros usos autorizados o respecto a las personas y al medio ambiente en general, los usos industriales se clasifican en las categorías siguientes:

a) Categoría 1.^a

Comprende las actividades industriales carentes de molestias o peligrosidad. La superficie utilizada en el ejercicio de la actividad, será, en todos los casos, inferior a 140 m²(t), debiendo considerarse a esos efectos la superficie construida de la totalidad del local afectado en cada caso.

Los usos industriales de esta categoría se considerarán asimilados a los usos de vivienda, terciarios y de equipamiento comunitario, pudiendo implantarse en los locales y parcelas destinados de forma predominante a estos usos.

